

idazkaritza-kontuhartzailletza

IRAGARKIA

Eskoriatzako Udaleko alkateak ondoko Ebazpena eman zuen 2026ko martxoaren 26an:

LEHENENGOA.- Gaur egun kulturako teknikari plaza betetzen duen pertsonaren erretiroagatik hutsik geldituko den lanpostua betetzeko bitarteko funtzionario bat hautatu eta izendatzeko oinarriak onartzea. Plaza hori Administrazio Bereziko Eskalako A taldeko A2 azpitaldekoa, Teknikarien Azpieskalakoa eta Erdi Mailako Teknikarien Klasekoa da.

BIGARRENA.- Deialdia egitea eta Idazkaritzak plaza betetzeko espedienteak izapidetu dezala.

HIRUGARRENA.- Deialdi hori eta dagozkion oinarriak Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran.

BOSGARRENA.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Berorren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean Donostiako auzi-administrazioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkoztat jo daitezkeen beste batzuek gain.

KULTURA TEKNIKARI BAT ALDI BATERAKO HAUTATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

LEHENENGOA.- Deialdiaren helburua.

Deialdiaren xedea da gaur egun kultura-teknikari plaza betetzen ari den pertsonak erretiroa hartu duelako hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko bitarteko funtzionario bat hautatu eta izendatzea. Plaza hori Administrazio Bereziko Eskalako A taldeko A2 azpitaldekoa da, Teknikarien Azpieskalakoa eta erdi-mailako teknikari klasekoa, eta bere titulazio-taldeari (lanpostu-mailako osagarria: 22) dagozkion oinarritzko ordainsariez eta plaza atxikitzen zaion lanpostuari esleitutako osagarriez hornituta dago.

Kultura teknikaria bitarteko funtzionario izendatuko da, lanpostua behin betirako bete arte karrerako funtzionario batekin.

Lanpostu honen funtzio eta erantzukizun nagusiak bigarren oinarrian zerrendatutakoekin lotutakoak dira.

Lanpostuak C1C1 hizkuntza-eskakizuna dauka esleituta, eta derrigortasun-data igarota.

Lanegunak eta ordutegia Udalak urtero ezartzen dituenak izango dira, eta asteburu eta jaiegun batzuetan lan egin beharko da kultura-zerbitzuaren beharrei erantzuteko, zerbitzuak eskatzen duen ordutegiaren malgutasun eta izaera irregularrarekin.

Hautaketa prozesua amaitutakoan, oposizio aldia gainditu duten eta funtzionario izendatu ez diren hautagaiekin lan poltsa bat osatuko da, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta, lanpostu berdinetan edo antzerakoetan langile ez finkoen beharrak estaltzeko erabiliko dena.



2026ILAB0001

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabekoetarako, ondorengo arauak aplikatuko dira hautaketa prozesuan:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki-administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dauden langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Era berean aplikatuko zaizkio horiek ordezkatzera etorri litezkeenak zein aplikagarri izan litezkeen bestelako arauak.

BIGARRENA.- Funtzioak.

- Arloan garatu beharreko programak eta jarduerak (inauteriak, Atxorrotx, San Pedro jaiak, Gabonak...) diseinatzea eta planifikatzea, eta baita horiek antolatu eta martxan jartzeko arduratzea ere.
- Programetan parte hartzen duten eragileen lana koordinatzea eta erraztea, eta baita horietarako giza baliabideak eta baliabide materialak ere.
- Programatutako jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta behar diren ekintza zuzentzaileak sartzea.
- Euskara teknikariarekin batera, Udaleko komunikazio eta protokoloaren arduradun lanak egitea: albisteak egitea eta komunikabideetara bidaltzea, webguneko edukiak eguneratuta edukitzea eta prentsaurrekoak eta komunikatuak prestatzea.
- Herriarren parte-hartzea babestu, bultzatu eta sustatzeko metodologia diseinatzea.
- Arloak prestatutako jarduerak eta programak zabaltzea eta horiei publikitate ematea.
- Informazioa zabaltzea, eta baita informazio-liburuxken edukiak prestatu eta maketazioa, edizioa eta banaketa gainbegiratzea ere.
- Hainbat programa antolatzea beste teknikari batzuekin elkarlanean (liburuaren nazioarteko egunaren ingurukoak, ZeDemontre...).
- Arloko herri-mugimenduak eta -ekimenak dinamizatzea eta babestea.
- Dauden kultura-ekipamenduak eta baliabide materialak behar bezala erabiltzen, kontserbatzen eta mantentzen direla zaintzea.
- Udaleko beste teknikari batzuekin koordinazio-bilerak egitea, arlo bati baino gehiagori eragiten dioten programetan.
- Jendeari arreta eta informazioa ematea, pertsonalki eta telefonoz, arloko berezko gaiei buruz.
- Jarduerak egiteko aholkularitza eta laguntza tekniko ematea talde eta elkartei.
- Arloko aurrekontuak egitea eta kontrolatzea.
- Lokalak lagatzeko hitzarmenak prestatzea eta horien jarraipena egitea.
- Kultur Etxearen, liburutegiaren eta Zaldibar antzokiaren funtzionamendu egokia kontrolatzea.



2026ILAB0001

- Erakunde ofizialei dirulaguntzak eskatzea, txostenak idaztea, dokumentazioa prestatzea eta jasotako laguntzak justifikatzea.
- Dirulaguntzen oinarriak egiten parte hartzea, eskabideak ebaluatzea, bai eta dirulaguntza eskaerei buruzko memoria eta balantze ekonomikoak egitea ere.
- Kultura Batzordera idazkari gisa joatea, gai-zerrenda prestatzea, aktaren idazketa koordinatzea eta aholkularitza ematea.
- Gabezia-egoerak detektatzea eta egoera horiei erantzuteko programak prestatzea.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatzea eta horiek emandako zerbitzuak gainbegiratzea.
- Brigada, udaltzainak, atezainak eta abar koordinatzea, jarduerak eta festak behar bezala egiteko.
- Lanpostuari dagozkion eginkizunekin lotuta arduradunak agintzen dizkion antzeko eta osagarritzko zeregin guztiak, edo zerbitzuaren arrazoiengatik beharrezkoak direnak, egitea.

HIRUGARRENA.- Izangaiei baldintzak eta eskakizunak.

Deialdi honetan onartuak izateko eta, hala badagokie, parte hartzeko, beharrezko baldintzak izango dira:

- A. Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko herritarra izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarra izatea.
- Era berean, espainiarren eta Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalen ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, nazionalitatea edozein dela ere, eta baita kasuan kasuko itunak hala aurreikusten duenean, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatu behar zaion estatuetako nazionalen ezkontideak ere, betiere, kasu horietan guztietan, zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza bereberekin, haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek parte hartu ahal izango dute, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izan eta haien kontura bizi badira.
- B. Hamasei (16) urteak beteak izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- C. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen honako titulu akademikoa izatea: gradua, ingeniari teknikoa, unibertsitateko diploma, 3. mailako lanbide heziketa edo baliokidea.
- Titulua atzerrian lortu duten izangaiek frogatu beharko dute baliokidetuta daukatela edo, hala badagokio, tituluaren homologazioaren egiaztatzea. Baldintza hori ez zaie aplikatuko Europar Batasuneko Zuzenbideko xedapenen babesean araututako lanbideen esparruan lanbide-kualifikazioaren aitorpena lortu duten izangaiei.
- D. Euskararen C1C1 hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea. Gaitasun hori egiaztatu ezin duenak Udalak horretarako egingo dituen probetan parte hartu ahal izango du (proba horietan lortzen den akreditazioak ez du baliorik izango hautaketa prozesu honetatik kanpo).
- C1C1 hizkuntza-eskakizunarekin baliokidetuta daude euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritakoak, eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotakoak.
- E. Lanpostuaren berezko egitekoak behar den bezala betetzeko gaitasun funtzionala izatea, zeina dagokien zerbitzu medikoek egiaztatuko duten bitarteko funtzionario izendatu aurretik. Hori dena, errege dekretu hau aplikatzearen kalterik gabe: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena.



2026ILAB0001

- F. Ez egotea, diziplina espediente bat dela medio, edozein herri administrazioen edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoen zerbitzutik bereizita; eta ez izatea, ebazpen judizialen bidez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko desgaitasuna absoluturik edo berezirik, ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan kontratadunen kasuan, bereizi edo desgaitu aurretik betetzen zituztenen antzeko funtzioak betetzeko ere.
- Beste estatu bateko herritarra bada, desgaituta edo horren pareko egoera batean ez egotea eta haren estatuan baldintza beretan enplegu publikora iristeko eragozpen den diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.
- G. Funtzionario publiko bihurtzea eragotziko dion bestelako ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izatea, dagozkien legeko xedapenek ezarritako baldintzetan.
- H. Deialdian parte hartzeko Eskoriatzako Udalak Zerga Ordenantzan izangaiei zerbitzuak emateagatik aurreikusitako tasa ordaintzea (20,00 euro). Tasa hori transferentzia bidez edo izena emateko aplikazioak emandako bideari jarraituz ordainduko da, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Transferentzia egiterakoan derrigorrez adierazi beharko dira espediente-zenbakia eta deialdian parte hartuko duenaren NAN zenbakia. Transferentzia honako kontu korrante hauetakoren batera egin beharko da:

KUTXABANK	ES86 2095 4408 5210 62063549
LABORAL KUTXA	ES35 3035 0044 87 0440900036
BANCO SANTANDER	ES91 0049 0721 52 2410215172

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude honako egoera hauetakoren bat egiaztatzen duten pertsonak:

- % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izatea.
- Langabezian egotea.

Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada edo osorik ez bada ordaintzen, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da izangaia.

LAUGARRENA.- Eskabideak aurkeztea.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera modu elektronikoan bete eta aurkeztu beharko da, 2026ko martxoaren 30etik apirilaren 22ra arte, eredu ofizial eta normalizatuan, Eskoriatzako Udalaren webgunetik: (<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/LEHautaketaProzesuakWEB/concursosAytos/34?idioma=eus>).

Onartua izateko, eskabideak Eskoriatzako Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eta errefusatuak ez izateko izangaiek adierazi beharko dute deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzen hartuta.

Prozesua zuzen egin bada, aplikazioan adierazi duen helbide elektronikoan horren frogagiria eta aurkeztutako eskabidea jasoko du izena eman duenak.

Eskabidean adierazi beharko dira baloratu nahi diren merezimendu guztiak.

Eskatutako hizkuntza-eskakizuna daukanak eta horregatik euskarako probarik egin behar ez duenak hala adierazi beharko du eskaeran.



2026ILAB0001

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Baloratu beharreko merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak.
- Langileak hautatzeko deialdian izena emateagatiko tasa ordaindu izanaren egiaztageria. Tasa modu nominal eta indibidualizatuan ordainduko da, eta kuota 20 eurokoa izango da.
- Motibazio-idazkia, orrialde batekoa gehienez ere, azaltzeko lanpostua zergatik bete nahi duen eta zergatik jotzen duen bere burua egokitzen lanpostua betetzeko. Lanpostuarekiko interesa, horrekin lotutako esperientzia edo prestakuntza eta izan ditzakeen trebetasunak edo gaitasunak adierazi beharko dira.

Interesdunak berariaz eskabidean kontrakorik adierazten ez badu, ondorengo eskakizunak ofizioz egiaztatuko dira eta espedienteari gehituko zaizkio.

- Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioa.
- Euskarazko hizkuntz eskakizuna.

Aurka egonez gero, interesdunak dagozkion egiaztageriak aurkeztu beharko ditu eskabidearekin batera.

Izangaiak hautaketa-prozesura aurkezteak esan nahi du datu pertsonalak babesteko araudiaren eraginetarako baimena ematen duela prozesuaren inguruko argitalpenetan identifikatua izateko, bai dagokion aldizkari ofizialean bai iragarki oholean bai udal webgunean.

BOSGARRENA.- Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Udaleko alkate-udalburuak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, bazterketaren arrazoiak adieraziko ditu.

Behin behineko zerrenda hori Eskoriatzako Udalaren iragarki oholean eta [Udalaren webgunean](#) argitaratuko da.

Erreklamazioak egiteko eta bazterketa eragin duten akatsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko hiru (3) egun baliodunetako epea emango da zerrenda hau udaleko webgunean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda behin betikoa bihurtuko da automatikoki.

Halakorik izanez gero, ordea, ezetsi edo balioetsi egingo dira beste erabaki batean. Horren bidez, onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartuko da, eta udalaren iragarki-taulan eta Eskoriatzako Udaleko webgunean argitaratuko da.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda Eskoriatzako Udaleko iragarki oholean eta webgunean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko da, hilabeteko epean.



SEIGARRENA.- Epaimahai Kalifikatzailea.

6.1. Osaera.

Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua xedatutakoaren arabera, hautaketa organoak kide anitzekoak izango dira eta haien osaerak kideen inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioekin bat etorri beharko du. Halaber, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzen saiatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Epaimahaia epaimahaiburu batek, hiru kidek eta idazkari batek osatuko dute, eta kide kopurua ezingo da bost baino gutxiago izan.

Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen-zerrenda Eskoriatzako Udalaren iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da, hautaketa prozesuko onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkate-udalburuak izendatu ondoren.

6.2. Espezialitatea.

Epaimahaiaren eraketa, batez ere, teknikoa izango da, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izan beharko dute deitutako lanposturako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa.

6.3. Abstentzioa eta errefusatzeta.

Epaimahai kalifikatzaileko kideek, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. artikuluan ohartemandako gorabeheraren bat egonez gero, ez dute epaimahaian esku hartuko eta alkate-udalburuari jakinaraziko diote; bestalde, izangaiek ere arbuia ahal izango dituzte mahaikideak, aipatu legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak.

Aholkulari espezialistak ekarri ahal izango dira, hala iritzitako probak programatu edo ebaluatzeko. Aholkularien zereginak beren espezialitatean laguntzera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lanen programazioa.

Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkogehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan neurri guztiak hartuko dira hautatze-prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko.

6.6. Jarduketa prozedura.

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, gutxienez hiru (3) kiderik gabe, titularrak edo ordezkogak izan, idazkaria kontuan hartu gabe. Erabakiak bertaratutako epaimahaikideen gehiengoaren aldeko botoekin hartuko dira, eta berdinketa izanez gero mahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko du. Epaimahaiko kide guztiek eman ahal izango dute beren iritzia eta botoa, idazkariak izan ezik; azken horrek, hitza besterik ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.



2026ILAB0001

c) Lehiaketa-oposizioko Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena, kide titularrez eta ordezkoez, Eskoriatzako Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da.

Epaimahaiburuaren eta bere ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausaren bat gertatzen bada, ordezkapen horretarako epaimahaiak izendatuko duen bokalak ordezkatzuko du; eta hura ere bertaratu ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen artean adin handiena duenak.

Idazkariaren eta haren ordezkoaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko bestelako kausa gertatzen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko gehiengoaren erabakiz hautatutako beste edozein kidek hartuko du haren lekua.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak erabakiko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarritik.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesdunari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

ZAZPIGARRENA.- Oposizio-aldia.

Oposizio-aldiko azterketetarako deialdiak Eskoriatzako Udaleko iragarki oholean eta udal webgunean (www.eskoriatza.eus) argitaratuko dira; eta bertan, data, hasiera ordua eta proba egiteko tokia jakinaraziko dira.

Hautagaiek nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena eraman beharko dute hautaketa probetara. Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango die agiri horiek erakusteko.

Oposizio-aldian ondoko ariketa hauek egingo dira:

A.- Lehenengo ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.

Oinarri hauen I. Eranskineko gaien edukiarekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie, Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako jarritako denboran.

Ariketa honetan 10 puntu lortu ahalko dira gehienez ere, eta ariketa gainditu eta hurrengo ariketa zuzentzeko gutxienez 6 puntu lortu beharko dira

Epaimahai Kalifikatzailearen esku gelditzen da erantzun okerrak nola zigortu erabakitzea, ariketa hasi baino lehen jakinaraziko dena.

B.- Bigarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.

Epaimahaiak jarritako kasu bat garatu beharko da idatziz, lanpostuaren berezko zeregin eta erantzukizunekin zerikusia izango duena, besteak beste, hauekin:

- Kultur programak eta jarduerak diseinatu, planifikatu eta antolatzea.
- Koordinazioa udal-langileekin, gizarte-eragileekin, elkarteekin eta udal-zerbitzuekin.
- Kultura-programen kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa.
- Udaleko kultura-jardueren eta ekitaldien jakinarazpena eta zabalpena.
- Kultura-ekipamenduen eta baliabide materialen kudeaketa.



2026ILAB0001

- Herritarrek kultura-jardueretan parte har dezaten sustatzea.

Ariketa horretan, bereziki baloratuko dira aztertze gaitasuna, ezagutzen aplikazio praktikoa, azalpenaren argitasuna, proposamenen koherentzia eta lanpostuaren funtzioekiko egokitasuna.

Ariketa egiteko gehieneko denbora epaimahaiak proba egiteko unean zehazten duena izango da.

Ariketa honetan hirurogei (60) puntu lortu ahalko dira gehienez, eta gutxienez 40 puntu lortu beharko dira proba gainditu eta prozesuan aurrera egiteko.

C.- Hirugarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea izangai guztientzat.

Izangaiek aurrez egindako ariketa teoriko-praktikoa azaldu eta ahoz defendatuko dute Epaimahai Kalifikatzailearen aurrean. Halaber, aurkeztutako motibazio-idazkiaren edukiarekin zerikusia duten galderak egin ahal izango zaizkie, koherentzia, motibazioa eta deitutako lanposturako egokitasuna egiaztatzeke.

Azalpenean zehar, izangaiek azterketan garatutako planteamenduak, irizpide teknikoak eta proposamenak azaldu eta justifikatu beharko ditu, eta epaimahaiak edukiari buruzko galderak egin edo argibideak eskatu ahal izango ditu, edukien ezagutza-maila eta aplikazio praktikorako gaitasuna baloratzeko.

Proba honetan honako alderdi hauek baloratuko dira bereziki:

- Ariketa teoriko-praktikoa garatutako edukiak menderatzea.
- Planteatutako proposamenak aztertzeke, arrazoitzeke eta irizpide teknikoak emateko gaitasuna.
- Hartutako erabakiak justifikatzeko eta argudiatzeko gaitasuna, bai eta epaimahaiak egindako galderei erantzuteko gaitasuna ere.
- Argitasuna, koherentzia eta sintesi-gaitasuna ahozko azalpenean.

Ariketa honetan hogeita (20) puntu lortu ahalko dira gehienez, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira proba gainditu eta prozesuan aurrera egiteko.

D.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketa. C1C1 hizkuntza-eskakizuna aldeztu aurretik egiaztatu ez duten izangaiek Udalak horretarako egingo duen euskara-proban parte hartu beharko dute.

Proba horretan lortzen den akreditazioak ez du baliorik izango hautaketa prozesu honetatik kanpo, eta, beraz, Udalak ez du inolako ziurtagiririk emango.

Proba hau baztertzailea izango da, eta "Gai" edo "Ez-gai" gisa kalifikatuko da.

ZORTZIGARRENA.- Oposizio-aldiko prozedura.

1.- Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketa-aldiko ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko eta ariketa horiek hautagaien identitatea ez ezagutzeko moduan zuzendu daitezkeen.

2.- Izangaien bat azaltzen ez bada Epaimahai Kalifikatzaileak azterketa egiteko deialdian adierazitako lekuan, egunean eta orduan, ezinbesteko arrazoiengatik izan arren ere, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da erabat.

3.- Epaimahai kalifikatzaileak egokitu egingo ditu probak egiteko denbora eta/edo bitartekoak desgaitasun egiaztatua duten pertsonentzat, haiek aldeztu aurretik eskatuta eta betiere eskabidean adierazi izan badu, aukeraberdintasuna bermatuz eta eska daitezkeen edukiak edo gaitasun-maila aldatu gabe.

4.- Ariketa baztertzaile bakoitza bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak Eskoriatzako Udalaren iragarki oholean eta [udalaren webgun](#)ean argitaratuko ditu ariketa bakoitzaren emaitzak.



2026ILAB0001

Proba bakoitzaren emaitzak argitaratu eta gero, 3 egun balioduneko epea izango da ariketa berraztertzeke edo/eta erreklamazioak aurkezteko. Epaimahaiburuari bidali behar zaizkio erreklamazioak, idatziz, Eskoriatzako Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztuta.

Probak egiteko egunean errekurtsoren bat erabakitzeko badago, interesdunak kautelaz egin ahal izango ditu, baina ez dute baliorik izango errekurtsos ezesten bada.

BEDERATZIGARRENA.- Merezimenduen aldia (lehiaketa).

Azterketen fasea gainditzeko duten hautagaiak merezimenduen fasera igaroko dira.

Ez dira baloratuko eskabidean adierazi edo alegatu ez diren eta oinarri hauetan horretarako adierazitako dokumentazioarekin egiaztatu ez diren merezimenduak.

Aldi honetan guztira gehienez ere 10 puntu lortu ahalko dira. Honako alderdi hauek baloratuko dira:

A- Esperientzia profesionala:

Epaimahai Kalifikatzaileak hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu baldin eta oinarri hauetan jasotakoari jarraituz eskabidean adierazi eta egiaztatu baldin badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuz:

- Udal batean edo kultur programazioa diseinatu eta gauzatzen duen sektore publikoko edozein entitatetan (izan publiko zein pribatu, betiere administrazio publikoak nagusiki finantzatutakoak badira), programazio kulturalaren inguruko ardurak (programatzea edo berau gauzatzea) dituen kultura teknikari edo kultura laguntzaile gisa emandako zerbitzuak: 0,01 puntu lan egindako egun bakoitzeko, eta **gehienez ere 5 puntu**.
- Kultur programazioa diseinatu eta gauzatzen duen enpresa pribatu batean, programazio kulturalaren inguruko ardurak (programatzea edo berau gauzatzea) dituen kultura teknikari edo kultura laguntzaile gisa emandako zerbitzuak: 0,01 puntu lan egindako egun bakoitzeko, eta **gehienez ere 3 puntu**.

Emandako zerbitzuak nola egiaztatu:

a) Udal batean edo kultur programazioa diseinatu eta gauzatzen duen edozein entitate publiko zein pribatuetan (betiere administrazio publikoak nagusiki finantzatutakoak badira) egindako zerbitzuak zerbitzuok bete diren administrazio organo eskumendunak emandako agirien bidez egiaztatuko dira, eta egiaztagiri horietan jaso beharko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak.

b) Eskoriatzako Udalean egindako zerbitzuak, alegatu bai, baina ez dira egiaztagirien bidez ziurtatu behar, izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuen arabera baloratuko baitira.

c) Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeke, enpresa-egiaztagiriak eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira, eta Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiriarekin batera aurkeztuko dira. Egiaztagirietan, betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

Halaber, eta aurreko atal horietako (a, b eta c) lan-esperientzia baloratzeari begira, izangaia ondoren adierazita datozen egoeretan egon bada, eskaera-orrian adierazi beharko du zenbat denbora egon den izangaia egoera horretan, eta horrek zinpeko aitorpenaren balioa izango du:



2026ILAB0001

- Senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia(k).
- Amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketa edo baimen egoera(k).
- Genero-indarkeriagatik baimena(k).

Egoera horietan egon izan den denbora zerbitzu aktiboan egon izan dela ulertuko da.

B- Formazio osagarria:

Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da. Formazio osagarrian **gehienez 5 puntu** lortu ahal izango dira.

Titulazioak: Kultura kudeaketan master edo gradu ondoak, euskal kulturaren aditu diploma edo antzerakoak. 5 punturekin baloratuko dira.

Ikastaro bat eskaera-orrian alegatu edo aipatu bada, baina ikastaro horren informazioa jaso ez bada, ikastaro hori ez da kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak erabakitzeke ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

HAMARGARRENA.- Lehiaketa-aldiko prozedura

Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduen aldira igaro diren izangaiek alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen balorazioa egin ondoren, Udalaren iragarki oholean eta [udalaren webgunean](#) argitaratuko du behin-behineko balorazioa.

Balorazioak argitaratu eta gero, 3 egun balioduneko epea izango da emaitzen aurka erreklamazioak aurkezteko (ezingo da dokumentazioa aurkezteko epean aurkeztu ez den bestelako dokumenturik aurkeztu).

Erreklamazioak, idatziz, edo dokumentazioa Epaimahaiburuari bidali behar zaizkio Eskoriatzako Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorraren bidez.

HAMAIKAGARRENA.- Epaimahai kalifikatzailearen proposamena.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa ateratzeko, azterketa-aldian (oposizioan) eta merezimendu-aldian (lehiaketan) lortu dituen puntuak batuko dira, eta batura horrek zehaztuko du izangaien lehentasuneko hurrenkera.

Berdinketa egongo balitz, honela eta hurrenkera honetan erabakiko da:

- a) Hirugarren ariketan puntu gehien atera izana.
- b) Bigarren ariketan puntu gehien atera izana.
- c) Bete behar den lanpostuarekin erlazionatuta lan-esperientzia gehien izatea.
- d) Formazio osagarrian puntuazio handiena izatea.

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen ebaluazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Eskoriatzako Udalaren iragarki oholean eta webgunean emango ditu argitara oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien



2026ILAB0001

datuak, lortu dituzten puntuen arabera gehienekotik gutxienekora ordenatuak, eta puntu gehien lortu dituen izendatzeko proposamena egingo du.

Hala ere, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, deialdira aurkezturiko izangaien artean ez bada lanpostuan jarduteko gutxieneko baldintzak betetzen duenik, deialdia esleitu gabe lagatzea erabaki ahalko du.

Epaimahaiak ezingo du, inolaz ere, deialdiko lanpostu kopurua baino izangai gehiago proposatu. Hala ere, udalean gerta daitezkeen langileen hutsuneak aldi batez bete ahal izateko, ariketa baztertzailleak gainditu dituzten hautagaien zerrenda erantsi beharko dio izendapen proposamenari, lortutako puntuen arabera ordenatua.

Epaimahai Kalifikatzaileak Eskoriatzako Udaleko alkate-udalburuari emango dio akta, behar den izendapena egin eta lan poltsa osatu dezan.

Proposatutako izangaiak, proposamenarekin batera jakitera emango den epean, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatu eta ofizioz egiaztatu izan ezin diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiri originalak aurkeztu beharko ditu.

Halaber, lanean hasteko izendapena sinatu beharko du, eta hiru hilabeteko praktikaldia izango du. Baldin eta esandako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, proposatutako izangaiak ez badiu agiriak aurkeztu edo ez badu deialdian eskaturiko baldintzak betetzen dituenik egiaztatu, ezingo da izendatua izan eta haren jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira.

Kasu horretan, oposizio-lehiaketa gainditu eta azken puntuazioaren ordenan hurrengo lekua betetzen duenaren aldeko izendapen proposamena egingo da. Hori baino lehen, eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

HAMABIGARRENA.- Izendapena eta praktikaldia.

Organo eskudunak bitarteko funtzionario izendatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposaturiko izangaia.

Izendatutako pertsonak 3 hilabeteko praktikaldia gainditu beharko du. Praktikaldia benetan egin beharko da, eta baztertzaillea izango da. Praktikaldiaren azken balorazioa "gai" edo "ez-gai" izango da.

Aldi baterako ezgaitasun-egoeragatik, amatasunagatik, aitatasunagatik eta adopzio edo harreragatik lizentzia hartzeak praktikaldiaren etenaldia suposatuko du, eta lanera bueltatzerakoan falta den praktikaldiari dagokion epea berriz hasiko da zenbatzen.

Praktikaldia ebaluatzeko kontuan izango da izangaiak egoki betetzen dituen lanpostuaren funtzioak.

Praktikaldia amaitu aurretik, praktikaldian diharduen funtzionarioari buruzko txostena egingo du horretarako izendatutako funtzionarioak, eta erakutsi dituen gaitasun hauek hartuko ditu kontuan txosten horretan: lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta efizientiaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko agertutako interesa. Era berean, lantaldera moldatzeko erakutsitako gaitasuna ere kontuan izango da.

Txostenean ez-gaitzat jotzen bada, izendapena amaitutzat joko da organo eskudunaren erabaki arrazoitu bidez.

Azken kasu horretan zein proposatutako izangaiak lanpostuari uko egiten badio, organo eskudunak bitarteko funtzionario izendatuko du hautaketa gainditu eta puntuazioaren arabera hurrengo tokian egongo den hurrengo izangaia.

Bitarteko funtzionario izendapena deuseztatzeko arrazoia izango da izangaiak probaldia ez gainditzea.



2026ILAB0001

HAMAHIRUGARRENA.- Gorabeherak.

Baldintza hauetan aurreikusten ez den guztian, sortzen diren zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioa ondo joan dadin beharrezko diren erabakiak hartzeko ahalmena du Epaimahaiak.

HAMALAUGARRENA.- Lan-poltsa

Hautaketa prozesua amaitutakoan, oposizio aldia gainditu duten hautagaiek lan poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta (berdinketa egonez gero, oposizio aldian kalifikazio altuena lortu duenaren alde egingo da, eta berdinketak irauten badu, emakumeek izango dute lehentasuna, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera). Lan poltsa Eskoriatzako Udalean eta behar duen edozein administrazioan sor litezkeen aldi baterako beharrak estaltzeko erabiliko da, lan-poltsa osatzen dutenek datuak lagatzeko baimena eman ostean. Baimen hori lanposturako deialdian parte hartzeko eskaeran sinatu beharko dute, hala nahi izanez gero.

HAMABOSGARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Araudiak, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datuen babesari buruz indarrean dagoen gainontzeko araudiak ezarritakoa betez, izangaien datu pertsonalak tratatu egingo dira langileak hautatzeko prozesua kudeatzeko eta jarraipena egiteko, eta baita hautaketa prozesutik sortuko den lan-poltsa kudeatzeko ere.

Eskoriatzako Udala, datu tratamenduaren arduradun gisa, datu pertsonalak tratatzeko legimitatuta dago interes publikoaren izenean egindako misio bat betetzeagatik tratatzen direlako datuak, lege betebeharrak baten baitan tratatzen direlako, eta baita datuak tratatzea beharrezkoa delako interesduna alderdi den kontratu bat gauzatu ahal izateko.

Eskoriatzako Udalak, lan-poltsako parte izango diren izangaien datu pertsonalak beste administrazio publiko batzuei emango dizkie, betiere deialdi honen bidez eskuratu nahi den lanpostuaren antzekoetan sor dakizkiekeen aldi baterako langileen kontratazio premiei erantzuteko, baldin eta izangaiak berariaz kontraktorik adierazten ez badu.

Datu lagapen horren helburu bakar eta eksklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea lege aurreikusitako baldintzetan. Datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko, tratamenduaren aurka egin zein horien mugatzea eskatzeko eskubidea egikaritu ahal izango da tratamenduaren arduradunaren aurrean, Eskoriatzako Udalera zuzenduta.

Halaber, eskubideak errespetatu ez badira edo eskaerari erantzun zuzena eman ez bazaio, izangaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (<https://www.avpd.euskadi.eus>). Tratamenduari buruzko informazio osagarria eskuragarri dago Eskoriatzako Udalaren webguneko Pribatutasun Politika atalean eta Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.eskoriatza.eus/RAT).

Tratamenduaren kodea honakoa da: 0602.



2026ILAB0001

HAMASEIGARRENA.- Inpugnazioak.

Deialdi hau, oinarriak eta horien eta epaimahaiaren jardunaren ondorioz egindako administrazio egintza guztiak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.

HAMAZAZPIGARRENA.- Dokumentazioa baliogabetzea.

Izangai guztiek aurkeztu duten dokumentazioa, hautaketa-prozesua bukatu eta sei (6) hilabeteko epean baliogabetuta geldituko dela ulertuko da udaleko edozein espedienteri begira.

GAI ZERRENDAA

1. **gaia.** [Udalerriko kultur programazioa eta jaiak: kultur ekitaldi nagusiak.](#)
2. **gaia.** [Udalaren kultur azpiegiturak eta ekipamenduak.](#)
3. **gaia.** [Eskoriatzako kultura- eta elkarte-sarea.](#)
4. **gaia.** [Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko modua arautzen duen ordenantza orokorra](#) eta 2026ko dirulaguntzen plan estrategikoa.
5. **gaia.** [H@ZI arreta integraleko zerbitzua arautzen duen ordenantza.](#)
6. **gaia.** [Eskoriatzako jaietan barrakak eta atrakzioak jartzea arautzen duen ordenantza.](#)
7. **gaia.** [Eskoriatzako jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa.](#)
8. **gaia.** [Eskoriatzako Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana.](#) 3. eranskina. "Hizkuntza irizpideak".
9. **gaia.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak udalaren jardunean. [11/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa \(III. titulua, II. kapitulua\)](#). Aplikazio praktikoa kultura-politikan.

Eskoriatza, 2026ko martxoaren 26a. Alkatea.



2026ILAB0001

ANUNCIO

La Alcaldía del Ayuntamiento de Eskoriatza dictó, con fecha 26 de marzo de 2026, la Resolución que se transcribe a continuación:

PRIMERO.- Aprobar las Bases que han de regir la selección y posterior nombramiento de un/a funcionario/a interino/a para cubrir la vacante por jubilación de la persona que ocupa actualmente la plaza de Técnico de Cultura, integrada en el Grupo A, Subgrupo A2, de la Escala Administración Especial, Subescala Técnica, Clase Técnico de grado Medio,

SEGUNDO.- Realizar la convocatoria y que por Secretaría se proceda a tramitar el oportuno expediente para la cobertura de la plaza.

TERCERO.- Publicar dicha convocatoria y sus correspondientes bases en el Tablón de Anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

CUARTO.- Dar cuenta de la presente Resolución al Ayuntamiento en Pleno en la primera sesión que celebre.

QUINTO.- La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA LA SELECCIÓN DE UN/A TÉCNICO/A DE CULTURA TEMPORAL

PRIMERA.- Objeto de la convocatoria:

Es objeto de la convocatoria la selección y posterior nombramiento de un/a funcionario/a Interino/a para cubrir una vacante, por jubilación de la persona que ocupa actualmente la plaza de Técnico de Cultura, integrada en el Grupo A, Subgrupo A2, de la Escala Administración Especial, Subescala Técnica, Clase Técnico de grado Medio, y dotada con las retribuciones básicas correspondientes a su Grupo de Titulación (Nivel de Complemento de Destino 22) y las Complementarias asignadas al Puesto de Trabajo al que se adscriba la Plaza.

El nombramiento de Técnico/a de Cultura se realizará como funcionario/a interino/a hasta la provisión definitiva de la plaza con funcionario/a de carrera.

Las funciones y responsabilidades principales de este puesto de trabajo son las relacionadas en la Base Segunda.

El puesto de trabajo tiene asignado el perfil lingüístico C1C1, con fecha de preceptividad vencida.

Los días laborables y el horario serán los establecidos anualmente por el ayuntamiento, debiendo trabajar algunos fines de semana y festivos para atender las necesidades del servicio de cultura, con la flexibilidad y carácter irregular del horario que requiere el servicio.



2026ILAB0001

Con las personas aspirantes que, habiendo superado el proceso selectivo, no resulten seleccionados, se conformará una bolsa de trabajo, ordenada en función de la puntuación obtenida, que se podrá utilizar para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares.

Para todo aquello no previsto expresamente en las presentes bases, serán de aplicación en el proceso selectivo las siguientes normas:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.
- Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.
- Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, por el que se establecen las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección de los funcionarios de Administración Local.
- Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.
- Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de Normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.
- Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.
- Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo de 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.
- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
